



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-12-02**

VIURTEA 1574.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako judo taldeko kideak Eduardo Ruizekin batera, herenegun, Usabalen. IDOIA LAHIDALGA

JUDO GURERA EKARTZEGATIK RUIZ PLAZA OMENDU DUTE

TOLOSA Usabal kiroldegian egin zioten omenaldia duela 50 lehen judo taldea sortzeagatik; Udaleko ordezkariak oroigarria eman zioten 3

Tolosaldeko hainbat herritan ekitaldi ugari izango dira Euskaren Egunaren harira 5

Ikurrinaren aldeko ekitaldi nazionala antolatu dute

LEITZA Abenduaren 13an izango da; Bai Euskal Herriari ekimenak aurkeztu zuen asteburuan 7



Errusiako Obrastsov taldea, atzo, Leidor aretoan. I.T.

Errusia, Italia eta Argentinako txotxongiloak, gaur 2

**GAUR, ABENDUAK 2
ASTEARTEA**

**Gerra Zibila Tolosaldean
HITZALDIA**

Aranzadi Zientzia Elkarte
Mikel Errazkin Agirrezabala eta
Juanxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00

Lekua:
Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

HITZALDIA 1936ko Gerrako
Oroitzapenak liburua eskuratzeko
aukera izango da.



ARANZADI



hitza

Istorio eta teknika ohikoak eta berritzaileak

Titirijai » Argentina, Errusia eta Italiako txotxongiloen txanda izango da gaurkoan, Titirijai jaialdian.

IÑIGO TERRADILLOS

Irudimenaren eta fantasiaren atekak parez pare irekiak ditugu aste osoan zehar, eta leku eta istorio ezberdinetan murgilduko gaituzte Titirijai jaialdiko txotxongiloek. Larunbatean hasi eta datorren astelehenera arte maila handiko ikuskizunak eta erakusketaz gozatzeko aukera izango da.

Gaurko egitarauari dagokionez, ikastetxeetako gaztetxoek zuzendurikoez gain, hiru emanaldi izango dira herritar guztiei irekiak:

Buenos Airesko konpainia

■ **17:30, Kultur Etxea.** *Manifonias, tocata y fuga para titeres* emanaldia eskainiko du Argentinako talde honek. Hagaxka eta eskullarru teknika erabiliz, 50 minutuko familia osoari zuzenduriko saioa da, Nestor Canigliaren zuzendaritzapean. Kontzertista oso ospetsu bat musika abesti bikain batzuekin entzulegoari atsegina emateko hastera doa. Entzuleak agurtu, eseri, inspirazioa hartu eta berehala funtzioa moztera beharrik sentitzen da,

sabotaia ulertezin baten ondorioz. Pertsonaia bitxiak sartzen diren eszenatokian helburu misteriotsu batekin. Ordena eta kaosaren arteko borroka barregarria da.

Voronezh antzerki taldea (Errusia)

■ **18:00, Musika Eskola.** *Soldadua* eta *sorgina* ikuskizuna eskainiko du Errusiako talde honek. Mahai gaineko txotxongiloak dira, eta familia osoari zuzenduriko ordubeteko saioa eskainiko dute, Valery Volhovskiyren zuzendaritzapean. Andersonen *Poxpolo kutxaxoa* ipuinean oinarritua dago. Txotxongiloek bizitza hartzen dute txotxongilolarien esku trebei esker. Maitasuna eta maitasun eza, adiskidetasuna eta leialtasun eza eta zintotasunari buruzko istorioa kontatzen dute.

Teatro Alegre (Italia)

■ **22:30, Casinoa.** *Marioneta in cerca manipolazione* emanaldia eskainiko dute. Marcelo Peralta teknika erabiliz, familia osoari zuzenduriko 50 minutuko saioa izango da, Damiano Privieraren zuzendaritzapean. Eguneroko bizitzako gai desberdinak bakarrik txotxongiloen keinuen komunikazioaren bidez, hitzik gabe eta ironiarekin eta poesiarekin jorratzen dituzten zebait esenez osaturik dago.



Obraztsov taldekoak atzo, Leidorren. Irudian, ijitoak kantuan eta dantzatzen. I. TERRADILLOS

«Gizakiak bezala sentitzen dugu»

I. TERRADILLOS

Errusia da aurtengo Titirijai Txotxongilo jaialdiko lurralde gonbidatua. Hala, batetik bertako txotxongiloekin osaturiko erakusketa ikusgarria dago Aranburu jauregian ikusgai, eta bestetik, bost konpainia errusiarren emanaldiak ikusteko aukera izango da jaialdian zehar. Konpainia hauetatik bat nabarmendu daiteke, Obraztsov, hain zuzen, Errusiako txotxongiloen zutabeetako bat. Atzo arratsaldean ikusi ahal izan zuten ikastetxeetako gaztetxoek konpainia handi honen emanaldi onen aukeraketa Leidor aretoan.

Umorez eta magia jantzitako saioak

Aurkezleak egin zituen saioen sarerakoak, era dibertigarrian, unero umorez bustitzen baitzituen bere hitzak. Zirkora bidaia zuten gaztetxoek, eta besteak beste, lehoi domatzailea ikusi zuten lanean; animaliak adarra jotzen zion domatzaileari, eta azkenean, asperzearen ondorioz edo, lehoiaren mokadutxo izaten amaitu zuten.

Boluntario moduan haurra jarri zuten pianoan aurkezleak, eta hau ez zela batera iaioa zeregin honetan ikusi zitekeen. Magoa eta bere laguntzaileak magia egin zuten,

eta sabel dantza ederki egiten zekien emakumea ere irten zen eszenatokira, barre ugari eragin zuelarik. Oilarra eta zakurrekin korua osatu zuen emakumea, tango erakustaldia, mariatxiak, ijitoen kantu bereziak eta japoniar emakumeen dantza; denetarik izan zen, beraz.

Saioaren amaieran sekretua kontatu zuen aurkezleak: «gu ez gara izaki bizidunak, panpinak gara, baina gizakiak bezala sentitzen dugu», eta Obraztsov-ekoek agerian egin zuten azken saioa, oihalak euren trikimailuak estali gabe, eta beste behin, duten kalitate erakutsiz.



Saharar familiari bisita

ELKARTASUNA » Azaroaren 28an abiatu ziren eta hilaren 8ra arte Tolosaldeko hainbat lagun saharar errefuxiatuen kanpalekuan izan-

go dira euren familiak bisitatzen. Bidaia aprobetxatuz, haurrak izan dituzten beste familien gutunak eta opariak ere eman dituzte. HITZA



Hirukideko langileen lana eskertuz

GIZARTEA » Hirukide ikastetxean Zaindariaren Astea ospatu zuten pasa den astean, hainbat ekitaldirekin. Horien artean, batxilergoko ikasleen eta irakasleen futbol partida, eta hainbat langile —argazkian— ere

omendu nahi izan dituzte, «euren lana eta dedikazioa eskertzeko»: 25 urte lanean igaro dituzten Kontxi Lankunza, Juana Mari Altuna eta Koldo Lopez, eta aurtien erretiroa hartu duen Maria Jesus Leguñena. HITZA

Hilberriak

MIREN GARBIÑE ETXEBERRIA ALZELAI

Atzo hil zen 74 urterekin Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Anai-arrebak: Gurutz (†) eta Merve Fernandez; Iñaki (†), Miren eta Juan Izagirre, Ibon (†) eta Mila Kerejeta; ilobak: Ion Iñaki, Merve eta Inazio Irigoien, Itziar, Ibone, Xabier eta Leire Saralegi eta Amaia; lehengusuak eta gainerako ahaidetak. Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hileta-elizkizunerako. Eskerrik asko gurtzoi alde zurretik.

Helbidea: Zurbano 11, 2. eskuina.

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierrri Beilatokian egongo da.



SEGURA
2008ko abenduaren 2a

JUSTINA OLIDEN GONZALEZ DE TXABARRI

Andrea
(Patxi Zaldúa Seguroaren alarguna)
Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-
AMA, ORAIN ARTE GUREKIN, HEMENDIK AURRERA GUREGAN

Bere seme-alabak: Patxi eta Ines, Iñaki eta Nerea, Joxemari eta Koro, Miren eta Eduardo; bilobak: Iñaki eta Ainara, Laida, Amaia, Jagoba, Olatz, Ainhoa; anai-arrebak: Mariano (†), Juanita (†), Patxi eta Ramonita; eskon anai-arrebak: ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidetak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Orioko Banko San Nikolas parroki elizan, egungo Jen'hietara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Nikolas, 13
Oharra: Familiakoek ez dute inor hartzen.



ORIO
2008ko abenduaren 2a



Agurra dantzatu zioten Eduardo Ruiz Plazari, igandean Usabalen egindako omenaldian. IDOIA LAHIDALGA

Judoa Tolosara hurbildu zuen gizona omendu dute

Judoa » Eduardo Ruiz Plazak duela 50 urte egindako lana goraiatu nahi izan zuten herenegun, Usabal kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Eduardo Ruiz Plaza omendu zuten herenegun, Usabal kiroldegian. Berak ekarri zuen judoa Tolosara, duela 50 urte. Burgostik etorri zen Ruiz, herritarren eskerrajasotzeko, eta ekitaldi hunkigarriaz gozatzeko. Ilusio handia agertu zuen kirolari ohia, ekital-

diaren berri jaso zuenean, eta familia ere berarekin etorri zen, memento berezi hau bizitzeko.

Ekitaldian parte hartu zuten ere Tolosako Udaleko ordezkariak. Besteak beste, bertan izan ziren Jokin Bildarratz alkatea eta Oskar Renedo, Kirol zinegotzia. Haste-ko, agurra dantzatu zioten omen-duari eta judo ikuskizun bat egin zuten gaur egungo judo taldekoek. Bestalde, zenbait orogarrari eman zizkieten Ruiz Plazari.

Duela 50 urte kirolaren egoera Tolosan oso ezberdina zen. Hala, judoa bezalako diziplinak ez ziren ezagutu ere egiten. Berak, Donos-

tiako hondartzan ikusi zuen lehenbiziko aldiz, jendea kirol hau egiten. Azkenik, ikusiminak jota, Donostiako taldean izena ematea erabaki zuen. Denborarekin, graduz igo zenean, lagunak bultzatuta, Tolosan aurkeztea erabaki zuen. Baina, orduan, ohartu zen, inork ez zekiela zer zen eta bakarrik zegoela horretan. Honenbestez, Tolosako alkatearena joatea erabaki zuen, eta instalakuntza bat eskatu zion, kirol hau garatu ahal izateko. Honek, egungo Batzokiko pilotalekua eskaini zion eta hau egokitu zuten. Honela hasi zela kirola judoaz zabalzen, Tolosan.

Bide Bide Ibizak porrot egin du Errioxan jokatuako partidari

Saskibaloia » Baja garrantzitsuak zituen taldeak eta ezin izan zuten garaipenik lortu; 86-58 amaitu zen norgehiagoka.

ERREDAKZIOA

Panorama ilunarekin bidaiatu zuten Bide Bide Ibizak larunbatean Logroño (Espainia) aldera. Jokalariei dagokionez, hiru baja garrantzitsu izan zituzten: Kike, Kaiet eta Lakun. Hiru hauei, Gonzi eta Dele-ren bajak gehitu behar. Bidaiatu zuten arren, Ion Izagirre-ren parte-hartzea zalantzakoa zen, aste gutzian ia batere entrenatu gabea baitzen, belaunean zituen arazoak direla medio. Arazo hauei aurre egiteko, Mendilu eta Julen juriorek bidaiatu zuten lehen taldearekin, ahal zuten neurrian esku

bat bota asmoz. Partidaren hasiera espero bezalako izan zen, etxekoak nagusi ziren jokoaren arlo gehienetan eta pixkanaka markagailuan aldeak lortzen hasi ziren. Horren lekuko lehen laurdenaren amaieran markagailuak adierazten zuena (19-14).

Bigarren laurdena hobeto hasi zuten talde tolosarrak eta kanpoko jaurtiketetan amatuz, markagailuan gerturatzeaz gain aurre-hartzea ere lortu zuen, 25-26 eta 27-28 jarritz. Une horretan, ordea, partida erabakiko zuen partziala iritsi zen (14-0), atsedenaldira 41-28 iritsiz.

Burumakur joan ziren urdinak aldagelara eta ezinezkoa egin zitzaizkien atsedenditiki aurrera egoera honi buelta ematea. Hirugarren laurdena, are eta okerragoa izan zen eta 27-15-eko partzialarekin 68-43 iritsi ziren azken hamar

minutuen hasierara. Azken laurdenen bi taldeak partida amaitzeko gogoarekin zirela nabaritu zen eta datu adierazgarri bakarra Martiak bizkarrean jaso zuen kolpe gogorra izan zen. Partzial hau ere errioxarrekin irabazi zuten (18-16) eta amaieran 86-58koa adierazten zuen markagailuak.

Porrota mingarria den arren, itzulerako partidari garaipena lortzeko aukerak daudela ikusiz larunbatekoan. Multzoko gainontzeko partidetan izandako emaitzekin bosgarren postuan darrai taldeak.

Datorren asteburuan atsedena izango dute eta urtea amaitzeko bi jardunaldi geratuko dira, abenduaren 13an Getxon jokatu duena eta abenduaren 20an etxean jokatu duten derby garrantzitsuak Goierri-Verkol taldearen aurka.

Laskorainek ez du zulotik ateratzea lortzen

Areto-futbola » Elgoibarko Kenci taldea izan zuten aurkari larunbatean; 4-5eko emaitzarekin galdu zuten partida.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Nazional B mailak eskaerak dituen derbi gipuzkoar anitzetako beste bat ikusi ahal izan zen larunbatean Usabalen. Elgoibarko Kenciren aurka lehiatu zen Laskorain, eta 4-5 galdu zuen.

Dagoeneko jardunaldi ugari pasa dira eta tolosarren zoriak ez

du aldatzeko arrastorik agertu oraindik. Epe motzerako helburuak finkatu eta puntuak berehala eskuratzea ezinbestekoa da denboraldiko sasoi garrantzitsu honetan.

Arerioa horitxoan antzeko mailan ari da. Hau esperientzi handiko jokalariez osatua, baina beste talde askoren moduan, puntu ahul dezente agertu zituen 40 minutuetan zehar. Etxekoek dena den, makina bat hutsunerakutsi zituzten denbora tarte horretan eta bisitariak ederki atera zuten etekina eskainitako gakodun jokaldi guztien lepotik.

Hirugarren garaipena Usabak MT-Tolosak

Mahai-tenisa » Aragoiko School Zaragoza taldea izan zuten aurkari; asteburu honetan Galiziarra joango dira.

ERREDAKZIOA

Lehenago edo beranduago iritsi behar zuen garaipena Usabalgo MT-trentzat. Hala, asteburu honetan ailegatu da, Aragoiko School Zaragoza taldearen aurkakoan hain zuzen ere.

Iker Mugerzak ireki zuen mar-

kagailua joko ona erakutsiz. Aurkari garbi menderatu zuen eta 3-0 irabazi zion Zaragozakoari.

Jota Urkizua izan zen bigarren jokalaria eta hiru saioetan, diferentzia txikiarekin, baina aurkariak gailendu zen. Honenbestez, berdinketa iritsi zen, hau da lehena tolosarrekin irabazi zuten, eta bigarrena kanpokoek. Hirugarren partida Emiliano Antonek jokatu zuen. Joku lasaia egin zuen, gehiegi arriskatu gabe.

Asteburu honetan Galiziarra joango dira tolosarrak, Naronera hain zuzen ere.

Aise irabazi diote Tolosakoek Hernaniri

ERREDAKZIOA

Tolosa CFk erraz lortu zuen garaipena asteburuko partidari. Hernaniren aurka jokatu zuen Berazubina, eta 4-0ko emaitzarekin etxeratu ziren urdinak. Honen ostean, lidergoan jarraitzen dute.

Blankok sartu zuen jardunaldiko lehen gola 20. minutuan. Honen ostean, aisa, etorri ziren ondorengoak, eta eroso jokatu zuen Tolosako taldeak.

@ Zurea da hitza. Atal honetan, zure inguruan gertatzen diren gertaera edo ekitaldien berri eman dezakezu. Honez gain, eskualdeko gai ezberdinen inguruko iritzia ere eman dezakezu. Bidalitako testua, ondoren, ostiraleko Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren papereko edizioan argitaratuko da.

www.tolosaldekohitza.info

Anton eta Balerdi izan ziren beste goleatzaileak. Atzokoa denboraldiko 12. jardunaldia izan zen. Oraingo 25 puntu lortu dituzte, eta atzetik dituzte, hiru puntu gutxiagorekin, Real Union Bkoak.

Asteburu honetan Trintxerpe izango dute aurkari. Oraingoan, Donostiara joan beharko dute jokatzerako. Hiriburukoak sailkapeneko zazpigarren postuan daude orain, 19 puntuekin.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin beharra dago. Interesatuak deitu 657 23 00 11era edo 634 91 94 82ra.



Hotzari aurre eginez

LARRAUL ● Eguraldiak ez zuen lagundu, herenegun Larraulen Kultur Astearen harira antolatatu zuten azokan. Horrexegatik plazan ordez, herriko pilotalekuan atondo zituzten postuak; hotz handia egin bazuen ere goiz

guztitan zehar jende ugari hurbildu zen azokaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko. Denetarik izan zen aukeran: jakiak, arropa, jostailuak, artisautza gailuak... HITZA ere bertan izan zen produktuak saltzen. J. MUJICA



Motorhotsak elur artean

IBARRA ● Langostino moto elkarteko motozaleen azken irteera jendetsua eta berezia izan zen. Guztira 39 lagunek euren motorra hartu eta Leitza aldera abiatu ziren, euria une oro bidelagun zutela. Orduntxe, Leitza,

euria elur bilakatu zen eta mara-mara bota zuten ibilbidearen zati handi batean. Zorionez, ez zuten istripurik izan eta onik bueltatu ziren guztiak ere etxera. Hilaren 28rako beste irteera bat aurreikusi dute. HITZA

LABen aldeko afiliazio kanpaina abiaraziko dute bihar Anoetan

ERREDAKZIOA

Bihartik hasita LABen aldeko afiliazio kanpaina egingo dute Anoetan. Hala, bihar, hilaren 10ean eta 17an, 18:00etatik 20:00etara izango da afiliatzeko aukera, Anoetako Udaletxeko azken solairuan.

Kanpainaren bultzatzaileek kanpainaren nondik norakoak zabaldu dituzte. «Kapitalismoaren krisi ekonomikoak gogor jotzen ari da, eta inoiz ezagutu ez dugun moduan joko du langileon etagure familien bizi baldintzen aurka», adierazi dute.

Haien ustez, «gobernuek eta enpresariak ez dute langileen alde egiten eta beraz langileak izan behar gara gure soldata, enplegua, es-



LABen aldeko kanpaina egingo dute. HITZA

kubide sozialak eta bizi baldintza duinak defendatu behar ditugunak (pentsioak, etxebizitza, osasuna, hezkuntza...).

Horregatik guztiagatik, «LAB sindikatuaren antolatzea eta borrokatzea behar-beharrezkoa da», baieztatu dute.

Txuleta festarako txartelen zozketaren irabazleak

ERREDAKZIOA

Eroso erosi, Tolosan noski kanpainaren baitan, heldu den asteburuan izango den Txuleta festarako txartelak zozketatu dituzte.

Hauek izan dira irabazleak: Manuel Zubillaga (Tolosa), Iñigo Alkorta (Tolosa), Casimiro Artetxe (Anoeta), Alaitz Labaien (Amezketeta) Denis Fortea (Tolosa), Saioa Sevillano (Tolosa), Koldo Tarragona (Tolosa), Mainer Goitia (Amezketeta), Arturo Artea (Tolosa), Arantza Zubillaga (Irura), Karnele Lanzeta (Tolosa), Maria Pilar Tena (Tolosa).

Eguberrietako Shanti trofeoan parte hartzeko izen-ematea, hilaren 12ra arte

ERREDAKZIOA

Eguberriak gerturatzen ari dira eta, urtero bezala, Shanti trofeoa antolatuko dute. 27. aldia da izango da aurtengoa eta txapelketak izena hartu du herrian. Bertan parte hartu nahi dutenentzat izen-emate epeazabalduta dute.

Hain zuzen ere, Shanti Kirolak dendan eman daiteke izena, hilaren 12ra arte. Infantilek (1995/96), alebinek (1997/98) eta benjaminek (1999/2000) har dezakete parte. Partiden berri aurrerago emango dute antolatzaileek, behin zeren da osatzen dutenean.

EUSKARAREN EGUNA ASTEASUN

Euskararen Nazioarteko eguna ospatuko da datorren abenduaren 3an Euskal Herriko hainbat herritan eta euskararen aldeko ospakizunik izango da Asteasun ere.

Euskararen aldeko jaia antolatu dute egun horretarako Asteasuko Pello Errota eskolak, gurasoen elkarteak eta Asteasuko Udalak eta dei egiten diete herritarrei ekimen desberdinetan parte hartu dezaten.

Asteasuko Udala

Legezaharren enparantza z/g, 943 69 19 07

EGITARAUA

Asteasuko FRONTOIAN izango da jaialdia. 15:30ean emango zaio hasiera eta gauko 21-21:30ak aldera amaitzea aurreikusten da.

15:30: Eskolako jaialdiaren hasiera

- Aurkezpena
- Kantuak
- Bideo mezuak
- Denon arteko "marrazki osatzea".

16:15: Merienda (gurasoek antolatua)

17:00: Txorromorro animazio taldearen "Gramola" emankizuna.

19:00: Diskofesta

(jaialdia 21: -21:30ak aldera amaituko da)

HERRITARRENTZAKO MEZUA

Euskararen Egunaz gozatu eta euskararen aldeko kontzientzia asteasunaren artean piztu dadin lortu nahi da honekin.

Asteasuko biztanleriaren %80 euskalduna da, %12 ia-euskalduna eta erdalduna gainerako %8a. Herritar gehienak euskara dakitenak izanik, euskaldunen arteko harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu nahi da, horrek jatorriz euskaldunak ez diren herritarren artean ere euskararekiko interesa pizten lagunduko baitu

Alegiako, Ikaztegiako, Asteasuko eta Tolosako udalek, euskara gogoan

Euskara » Euskararen Eguna bihar izanik, egitarau bereziak prestatu dituzte; ikastetxeetan ere prest daude biharko egunerako.

ERREDAKZIOA

Euskararen Nazioarteko Eguna (ENE) ospatzen da abenduaren 3an, hau da, bihar. Eguna honek, merezi bezala, izango ditu hainbat ekitaldi herri askotan, eta zer esanik ez, ikastetxeetan. Baina, beste-ala ere, hainbat udalek prestatu dute ezer berezirik euskararen inguruan, herritar guztien eskura. Asteasun, Ikaztegiako, Alegian eta Tolosan izango dira gauza bereziak.

Asteasuko Udalak, adibidez, Pello Errota eskolarekin eta guraso- en elkartarekin batera Euskararen Eguna gozatu eta euskararen aldeko kontzientzia asteasur guztien artean piztu dadin, arratsalde osoan zehar bideo emanaldia, diskofesta, merienda, denon artean osatutako marrazkia eta abar izango dira; guztiak ere, frontoian egingo dituzte, 15:30etik aurrera.

Asteasuko biztanleriaren %80 euskalduna da, %12 ia euskalduna eta erdalduna gainerako %8. Herritar gehienak euskara dakitenak izanik, «euskaldunen arteko harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzeak duen garrantzia» azpimarratu nahi da, horrek «jatorriz euskaldunak ez diren herritarren artean ere euskararekiko interesa pizten lagunduko baitu».



Altzon igandean izan zuten euskararen eguna gogoan eta 27 aur eta gazte film bat ikusten izan ziren udaletxean. HITZA

Ereirekin, ipuin kontalaria

Ereitek antolatuta, bihar Idoia Sanchez ariko da Tolosako Udal Liburutegian. Ostiralean ere badiragauzak. Ereitek antolatutako hitzaldia izango da Haur Liburutegian: Kike Amonarriz eta Xabier Aierdik bideratuko dute eta euskaraz eta etorkinez ariko dira. 18:30ean da hitzordua. Uzturre sagardotegian afarira joateko aukera izango da segidan, hau ere Ereitek antolatuta.

Ikastetxeetan ere bai

Esan bezala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri guztietako ikastetxeetan biharko eguna era berezian ospatuko dute, euskararen inguruan guztia. Villabonako Fleming ikastetxean, esaterako,

gaur, esaterako, 11:30ean eta Arroako eskolan, irratsaio berezi bat egingo dute ikasleen, irakasleen eta baita guraso batzuren laguntzaz ere.

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxean aste osoan zehar antolatuko dituzte gauzak, baina herritarrek ikusteko moduan biharko izango da: ikasleek 15:30ean gimnasioan euskal kantak eskainiko dituzte.

Altzon, herenegun

Altzoko Udalak bere aldetik, herenegun izan zuen gogoan Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren 3a kontuan izanik, film bat jarri zuten udaletxeko aretoan: *Baloia* ikusi ahal izan zuten bertaratu zirenek (jatorriz *The ball*) eta haur

eta nerabeei zuzendutakoa zen. 27 ikusle hurbildu ziren udaletxera, igandeko arratsaldean.

Euskararen Egunak 59 urte

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen da (Nafarroako zaindariaren eguna ere bai) eta duela 59 urte antolatzen da. Ipar Euskal Herrian hasi ziren egun hau gogoratzen Eusko Ikaskuntzari esker. Euskal Herriaz gain, Parisen, Mexikon, Karacasen eta New Yorken ere ospatzen ohi da.

Erakunde zientifiko-kulturala da Eusko Ikaskuntza. 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiak sortu zuten «euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa».

Paul Bilbao etzi Hizkuntz Eskubideen Tailerra emango du Kultur Etxean

Alegia » Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria euskararekiko interesa duen orori zuzenduko zaio.

ERREDAKZIOA

Zenbatetan gertatu izan den, euskaraz egin nahi, eta ezin: autobusean, medikuaren kontsultan, unibertsitatean, epaitegian, merkataritza zentroan, eskolan...

«Eta zer egiten duzu horrelakotan haserre zaudela adierazteko? Ba al dakizu zer egin?», dio Alegiako Udalak. Egoera horietan zer egin jakiteko, Paul Bilbao Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak Hizkuntz Eskubideen Tailerra emango du Alegiako Kultur Etxean etzi, Euskararen Egunaren harira.

Jendearentzat interesgarria delakoan eta euskara «denon kontua delako», jendea Kultur Etxean azaltzea espero dute etzi, interesgarria izango baita.

Kexak jasotzeko buzoia

Horretaz gain, aurkezpen bat ere egingo dute: Alegiako euskaldunek hizkuntz kekek jartzeko buzoia, hain zuzen ere. 19:30ean izango da, Alegiako Udala, Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen eskutik.



Paul Bilbao, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria. HITZA

» EGITARAUAK

Bihar Asteasun

- **15:30.** Eskolako jaialdiaren hasiera: Aurkezpena, kantuak, bideo mezuak eta denon arteko marrazki osatzea.
- **16:15.** Merienda (gurasoek antolatuta).
- **17:00.** Txorromorro animazio taldearen *Gramola* emankizuna.
- **19:00.** Diskofesta. Jaialdia 21:30a aldera bukatuko dute.

Bihar Ikaztegiako

- **11:00.** Ikaztegiako Udalak hamaiketako egiteko jakiak Guraso Elkarteari eman dio: taloak izango dira bertan.
- **Bitartean.** Kalejiran ordu horretan eskolako haurak aterako dira trikitixaren laguntzaz eta prestatu dituzten kantu zaharrak abestuko dituzte (*Behin betiko, Aitorren hizkuntz zaharra...*).

Bihar Tolosan

- **18:00.** Haur liburutegian Idoia Sanchez ipuin kontalaria, Ereitek antolatuta.
- **18:00.** Udaletxeko pleno aretoan Joxerra Garzia idazle eta kazetari eta irakasle legazpiarraren hitzaldia. *Zer arraia, kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin?*. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutakoa.

Etzi Alegian

- **17:00.** Bertso-Txotxongilo (Lanku bertso zerbitzuen eskutik) emanaldia Kultur eta Kirol Etxean.
- **19:30.** Hizkuntz eskubideen tailerra. Alegiarrei ez ezik, inguruko herrietako euskaldunei ere irekia da. Tailerra Paul Bilbao Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendariak emango du, hau ere Kultur eta Kirol Etxean.

Titirijai 2008ren baitan,

honako saio hauetarako **sarrera pare bana** zozketan, deitu eta eskuratu:

Abenduak 6 larunbata • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **EUGENIO NAVARRO**

Abenduak 6 larunbata • 19:00tan Tolosako Leidorren: **TEATRO DE LA LUNA**

Abenduak 7 igandea • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **LA PICARA LOCUELA**

Abenduak 7 igandea • 19:00tan Tolosako Leidorren: **BUHO MARAVILLAS**

Abenduak 8 astelehena • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **TITERES DE SAN PETERSBURGO**

Abenduak 8 astelehena • 19:00tan Tolosako Leidorren: **COMPANIA DEL PRINCEP TOTILAU**

Deitzen duzuenok, **17:30erako edo 19:00tarako** saioetako zozketetan sartu nahi duzuen esan beharko duzue. Ezingo da saio zehatz baterako zozketan sartu.

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**



Elkartasun Azoka antolatu dute etxeko trasteak berrerabiltzeko

Berastegi » EA21eko Ingurumen Batzordeak antolatu du ekimena; hilaren 15ean hasi eta 22an amaituko da azoka.

ERREDAKZIOA

Etxeetan pilatzen diren gauza guztiak ikusita, «urteetan alfer-alferrik pilatzen» diren horietan, hain zuzen, antolatu dute Berastegin Elkartasun Azoka, hilaren 15ean hasi eta 22an amaituko dena.

EA21eko Ingurumen Batzordearen ekimena da eta honekin «erabiltzen ez ditugun gauza horiei guztiei etekina ateratzea» dute helburu, «erabiltzen berri bat ematea», alegia, gaineratu dute.

«Guztion laguntza»

Azoka berezi hau «eraginkorra» izateko batzordeko kideek oso argi dute «guztion laguntza eta partaidetza ezinbestekoak» direla. Hau dela-eta «herritarrek azoka hau benetako aukera bezala ikus dezaten, guztiok ahalegin berria egitea eskatu nahi dugun».

Horiek horrela, herritarrek etxean pilatutako gauza horiek guztiak salgai jartzera gonbidatzen dituzte; objektu hauek prezio sinboliko bat izango dute eta lortzen duten dirua oraindik ere zehaztu gabe daukaten helburu solidario batera bideratuko dute. Objektuak Ertoetxeko lehen solairura eraman behar dira aste honetan eta hurrengoan zehar, 16:30etik 18:00etara, astelehen, astearte eta

ostiraleetan. Era berean, salgai jarri nahi diren objektu horiek erabili daitezkeen eta txukun dauden gauzak izatea eskatu dute.

Ertoetxeko lehen solairuan

Azoka, arestian aipatu moduan, hilaren 15ean hasiko da eta Ertoetxeko lehen solairuan bertan izango da astelehen, astearte eta ostiraletan, 16:30etik 18:00etara. Asteburuetan berriz, hilaren 20 eta 21ean, azoka goizez izango da zabalik 11:30etik 13:30era.

Bestalde, egun hauetan zehar azokan egoteko bolondresak ere behar dituztela esan dute batzordeko kideek, eta beraz horretarako prest dauden herritarrek Ingurumen Batzordearekin hitz egiteko eskatu dute.

Ehun bat komiki jaso dituzte Galtzakomikien parte hartzeko

Ibarra » «Harrituta» daude Galtzakomik lehiaketako antolatzaileak, izan ere uste baino lan gehiago jaso dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Galtzakomik lehiaketako antolatzaileek, Galtzaundi Euskara Taldea eta Ibarrako Udala, oso kontentu daude lehiaketan parte hartzeko jaso dituzten lan kopurua ikusita.

Galtzaunditik esan dutenaren arabera, «harrituta» ere badaude, izan ere ehun bat lan jaso dituzte eta ondorioz beste maila bat sortzea ere erabaki dute. Hasiera batean bi maila aurreikusit zituzten; 18 urtetik gorakoentzat bata, eta behekoentzat beste. Baina 18 urte behekoen maila jasotako lan guztiak ikusita, hamar urte behekoentzako beste «saritxo bat» ematea ere adostu dute. «Ez zaigu egokia iruditu 10 urteko edo 17 urteko haurrek egindako lanak maila

berean epaitzea», azaldu dute zentzu honetan.

Gaztetxoei euren euskarazko komikiak egiteko aukeratutako gaiak askotarikoak direla ere aipatu dute eta baita lanak Euskal Herri osotik jaso dituztela ere; «Altsasuko eskola batean, adibidez, komikigintza lantzen ari zirenean eta ondorioz lan asko jaso ditugu Altsasutik».

Epaimahaiaren erabakia

Behin lanak jasota epaimahaiako kideak bildu behar dira orain lan onenak aukeratzeko. Ostegunetan dute hitzordua eta ondoren, hilaren 12an, emango dituzte sariak Ibarrako Udalean egingo duten ekitaldian.

Epaimahaiako kideak komikigintzan eta orokorrean sorkuntzaren arloan eskarmentu handia dute. Hauek dira zehazki epaimahaia osatzen duten kideak: Joseba Antxustegietxarte Galtzaundiko komikilaria; Juanba Berasategi, besteak beste, animaziozko filmetan lan egiten duena; Asisko Ur-

meneta Argiako komikilaria eta kultur eragilea; Iñaki Martiarena, Mattin, prentsa komikilaria; Frantzisko Jabier Etaio prentsa komikilaria; Iñaki Epelde eta Jose Luis Longaron artista tolosarrak; eta Kike Amonarriz telebistako aurkezle eta pertsonaia polifazetiko tolosarra.

Sariak

Aipatu behar da 18 urtetik gorakoek bi sari jasoko dituztela; lehenengoak 600 euro eta komikiaren argitalpena, bai paperean eta baita webgunean ere, jasoko ditu eta bigarrenengoak, aldez, 400 euro. 10 eta 18 urte bitarteko lehenengoak 400 euro jasoko ditu eta paperezko zein web orrialdeko argitalpena, eta bigarrenengoak, 200 euro. 10 urte behekoen irabazleak, esan bezala, saria jasoko du, nahiz eta ez den diru saria izango.

Era berean, jaso dituzten lan guztiak biltzen dituen erakusketa bat ere antolatuko dute eta sarietuen komikiekin liburuxka bat ere argitaratuko dute.

Z Zurea da hitza info



Bi kilo perretxiko Lizartza inguruan

IBARRA » Irudian ikusi daiekeen gaztea Jon Romero Zinkunegi ibartarra da. Nahiko harro dagoela ikusi datiteke eta ez da gutxiagorako. Orain ez asko perretxiko bila atera zen Lizartza ingurura eta bi kilo biltzea lortu zuen, tartean irudian ikusi daitezkeen ondoak ere bazirela. Iritxi da perretxiko bila joateko garaia, elurrak uzten badigu behintzat. HITZA

Garaipena ekarri dute ibartarrek Bizkaira egindako bidaietik

Ibarra » 4-6 irabazi zuen Ibarrako taldeak denboraldi honetan ondo baino hobeto doan Zierbenaren kontra.

ERREDAKZIOA

Zierbenaren kontra aritu zen asteburu honetan Ibarrako Lauburu areto-futboleko taldea eta garaipena lortu zuen gainera. 4-6 garaitu zen Ibarrako taldea, zehazki.

Garaipen garrantzitsua

Garaipen hau, gainera, are garrantzitsuagoa da Zierbena denboraldi honetako talde indartsuenetarikoa dela kontutan hartuz. Txubelen taldeak, gainera, baja ugariarekin joan zen Bizkaira, izan ere Cristian Davilaren bajarekin batera (hilaren 11n egingo diote ebakuntza) Ruben Etxarte eta Aritz Otaegi jokalariek ere ezin izan ziren zelaiaratu.

Azken hiru partidetan galdu egin du Ibarrako Lauburu taldeak, eta hori dela eta, oso garrantzitsua da asteburu honetako garaipena.

Laburrak

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera

ANOETA » Gabonak iristear diren honetan Anoetako Udalak Olentzero eta Mari Domingiren etorrera antolatzeko bilera bat egingo duela adierazi du. Hitzordua Kultura batzordeak egiten du eta herriko taldeei zein interesa duen herritar orori bertan parte hartzeko gonbita egiten diete. Hitzordua gaur izango da, asteartea, 20:00etan herriko Udaletxean.

Salvadorako babes ofizialeko etxeen zozketa

VILLABONA » Bihar, hilak 3, Villabonako Gurea Antzokian, Salvadorako babes ofizialeko etxeen zozketa burutuko da. Guztira 49 etxebizitzak zozketatuko dira. Eraikiko diren etxebizitzetatik zazpi 3 gela eta 2 bainugela izango dituzte; berrogeik, 2 gela eta bainugela bat; eta bik, gela bat eta bainugela bat. Azken bi hauek 40 metro koadro ingurukoak dira eta gainontzekoak, 57 eta 81 m koadro artekoak. 49 etxebizitza horietatik bi ezinduak diren pertsonen esleitzeko prestatuak daude.

Gabonsari banaketa hilaren 22ra arte

IBARRA » Ibarrako erretiratu eta pentsiodunen Bizi-Nahi elkarteak zuzendaritzak jakinarazi duenez, hilaren 22ra arte banatuko dituzte gabonsari boltsak bazkideen artean. Gabonsariekin batera 2009ko urtarilaren 11n egingo duten taldeko ohiko Batzar Orokorrerako gonbidapenak ere banatuko dituzte. Boltsa jasotzerako garaian bazkide txartela erakutsi beharko da. Bestalde, bihar, hilak 3, Ainhoa Garcia *Maitasuna* eta *Afektibitatea* adineko pertsonetan hitzaldia eskainiko du elkartearen bertan 18:30ean.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN
LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILE ETA
KONTRASTATUAREKIN
LEITZAKO HEDAPENERAKO
BEREZKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI
DUTEN PERTSONEKIN
HARREMANETAN JARRI NAHI DU
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK
Harremanetarako telefonoa:
607219256 / 607 575018**

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ikurrinaren alde ekitaldi nazionala antolatu dute abenduaren 13rako

Leitza » Bai Euskal Herriari ekimenak egun guztiko egitaraua aurkeztu zuen udaletxean hainbat herritarren babesarekin.

ASIER IMAZ

Bai Euskal Herriari ekimenak *Geurea ikurrina!* lelopean, euskal ikurrak defendatzeko hitzordu nazionala antolatu du Leitzan abenduaren 13rako.

Egun osoko ekitaldien aurkezpena larunbatean burutu zuten udaletxean. Ikurrinaren alde, herrian 150 atxikimendutik gora bildu dituztela aipatu zuten eta hauek batzuk aurkezpenaren egun ziren, bertatik «gure nortasuna ukatzen dutenen aurrean» zutizteko deia eginaz.

Ikurrina euskal erakundeeetan

Leitzan eskainitako agerraldian, Bai Euskal Herriari ekimenak ikurrina euskal erakunde guztietako mastetan kulunkatzen ikusi nahi duela azaldu zuten. Herri honen «izatea eta etorkizuna bahitzen duten sinboloek» euskal herritarren erakundeetan lekurik ez dutela uste du herri ekimenak, eta hori dela-eta, «bandera horiek ongi-etorriak ez direla ozen esateko ekitaldia eta manifestazioa antolatu ditugu Leitzan, abenduaren 13an».

Leitzarren babesa

Ekimenaren sustatzaileen esanetan, jadanik Leitzako herrian ikurrinaren aldeko 150 atxikimendu



Bai Euskal Herriari ekimenak ikurrinaren aldeko ekitaldia aurkeztu zuen pasa den larunbatean. NEREA URBIZU

baino gehiago bildu dituzte. Sinatzaileen artean ikasleak, langileak eta erretiratuak aurkitzen dira, hauekin batera, hainbat leitzar ezagun ere aurki daitezke zerrendan: Mikel Nieve txirrindularia, Jon Kanflanka segalaria, Asier Olaizola, Oinatz Bengoetxea eta

Abel Barriola pilotariak, Mieltxo Saralegi harri-jasotzailea, Patxi Astibia aizkolari ohia edota Xabier Zabalo Leitzako alkatea. Bai Euskal Herriariren esanetan: «Eragile babesleen artean aniztasuna nagusi da, hogoita bost eragile biltzen dituen zerrendan haur eskola, ju-

bilatuen elkarteak, bertsozale talde edota preso taldea aurki baitaitezke».

Ikurrinaren egoera, gaur

Leitzako udaletxeko batzar aretoan, herritarrekin batera, herri ekimeneko eledunaden Mikel Lulua-

ga egon zen. Honek, zazpi lurraldeetan ikurrinaren egoera azaldu eta salatu zuen: «Egun, euskal ikurrak desagerrarazteko eta atzerriko banderak inposatzeko erabakia gauzatzen ari dira. Batetik, Nafarroa Garaian, Ikurren Legea ezarri ikurrinaren erabilera instituzionala legez kanpo utzi dute. Eta, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan aldiz, ikurrina balore politikorik gabeko sinbolo folkloriko gisa sustatu dute».

Euskal Autonomi Erkidegoaren inguruan, gogoan izan zuten Espainiako Auzitegi Gorenak Gas-teizko parlamentuari bandera espainola jartzeko berriki emandako agindua. Leitzatik honako galdera luzatu zieten: «Orain, ikurrinari tokirik egingabe hainbat urte igaro ondoren, espainiar ikurra jarri behar al duzue, Nafarroa Garaiko parlamentuan UPN eta PSNk jarri zuten bezala?».

» EGITARAUA

Abenduak 13, larunbata

- **11:00.** Harrera ekitaldia: txalapartariak, irrintzilariak, dantzariak...
- **12:00.** Herri kirolak.
- **12:00.** Txekorra burduntzian egin eta pintxoak jateko txokoa irekiko da.
- **13:00.** Manifestazioa eta ondoren ekitaldia Udaletxearen aurrean. Joaldunek eta dantzariak irekiko dute martxa.
- **14:30.** Herri bazkaria.
- **Ondoren.** Ansa ahizpen kantaldia.
- **17:30.** Patxi eta konpainiarekin dantzaldia eta erromeria.
- **20:00.** Kale animazioa: erraldoiak, buru handiak eta tritilariek giroturik.
- **Gauean.** Kontzertuak Gaztetxean.

Aurrera Pilota Eskolako emaitza guztiak

Leitza » Paleta Goma eta esku pilotaren artean, hamabost partida jokatu zituzten Aurrerako pilotariak asteburuan.

A. IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako pilotariak partida ugari jokatu zituzten asteburuan: alde batetik, Nafar Jokoen baitan eta beste alde batetik, herri ezberdinetako txapelketetan egon ziren leitzarrek.

Paleta goman ere partidak jokatu zituzten asteburuan Leitzako neskek.

Nafar Jokoa

Asteburu honetako lehen partida Paleta Goman jokatu zuten Amazabal pilotalekuan Agirre eta Aristorenak ostiralean. Bikoteak 14-30



Nafar Jokoa eta pilota, Amazabal pilotalekuan. HITZA

galdu zuten Orkariz eta Larrionen aurka.

Esku pilotan, larunbatean jokatu zituzten leitzarrek partida guz-

tia, Amazabalen, Lizarran, Uhartan, Iruñean eta Zubirin. Emaitza hauek lortu zituzten: Aimar Gil-Mikel Erasok 10-18 irabazi zuten;

Ander Gartziaienak eta Markel Barriolak 13-18 galdu zuten; Iñigo Mitxaus-Ibai Barberenak 18-10 irabazi zuten; Sagastibeltza Egues eta Ibai Gil bikoteak 18-15 irabazi zuten; Oier Igartua-Iñaki Saralegik 7-18 galdu zuten; Joseba Eskudero-Joanes Illarregik 6-18 galdu zuten; Ander Alduntzinek eta Beñat Altelak 18-10 irabazi zuten eta Iparragirre-Anartz Olanok 18-7 irabazi zuten.

Guillermo Mazo Txapelketa

Lekunberrin jokatzeko ari diren Lau t'erdiko Txapelketan, Jaunarenak 8-18 galdu zuten Ezkurdiaren aurka jubenil mailan.

Burlatoko Txapelketa

Burlatan bi partida jokatu zituzten bertako txapelketan leitzarrek. Maestresalas-Iriartek 10-22 galdu zuten Ropon-Arcelusen aurka le-

hen partidaren. Bigarrean Olanorenak 18-15 irabazi zuten Agirre-Bemaberri.

Zaldibarko Txapelketa

Zaldibarren Jaunarenak irabazi egin zuten bere partida 22-15 Mendinetaren aurka.

Lizarrako Txapelketa

Remontival pilotalekuan Goikoe-txea 6ean eratu zen Maestresalasean aurka.

Etxarri Aranatzeko Txapelketa

Azkenik, larunbatean jokatu zuten asteburuko bigarren Paleta Gomako partida.

Lehen partidako protagonista berak irten ziren frontoira, baina kasu honetan Agirre eta Aristorenak 30-7 irabazi zuten Maripazi eta Mertxeri Etxarri Aranatzeko Txapelketan.



9°
5°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatuta duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).
- **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 5etik 8ra izango da Zerkausion. Afariak 5etik 7ra eta bazkariak 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.net helbidean.
- **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite Amonarri kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Titirijai 2008 txotxongilo jaialdia, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, herriko kultur gunetan.
- **Zizurkil.** Itsasmendikoi Frisorok lorezain, lorezaintzako teknikari eta lorezaintzako heziketa ziklotako ikasleentzat ikastaroa antolatu du.

Erakusketa

- **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olano kiroldegian.
- **Tolosa.** Txotxongiloen jaialdiko erakusketa, *Errusiarako leihoa* ikusgai Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Gerra Zibilari buruzko lana kalean da

TOLOSA ● Joxemi Saizar eta Mikel Errazkinen egin duten 1936ko Gerra Oroitzapenak Tolosaldea eta Leizaldean liburuaren aurkezpena egin zuten atzo Zerkausion. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta Galtzaundi aldizkariak elkarlanean argitaratu duten lanak Gerra Zibilak eta lehen frankismoak gurean izan zuen eragina eta ondorioak aztertzen ditu, datu ugariekin eta hainbat elkarrizketekin. Jende ugari izan zen atzokoan eskualdeari buruzko lan oso honen aurkezpenan. Liburua bertan eskuratzeko aukera izan zen, baina HITZA eta Galtzaundi-ren egoitzan eta liburudendetan ere erosi ahalko da 18 euroren truke (harpidedunek 14). Bestalde, gaur, Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia izango da, Tolosako udaletxean, 20:00etan, Mikel Errazkin eta Juantxo Agirrekin. ir.

A Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



euskaraz bai

13!

laguntzailea
hitza

pauso bat harago

Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00

Ezinbesteloa da doako sarrera eskuratzea:
nierebanoa.com webgunean
902 82 02 40 telefonon

KONTSEILUA



Tolosako Euskara Batzordea
Euskarari bai!

Plaza zaharra 6A • 20400 Tolosa
Tel.: 943 69 74 53
euskara@tolosakoudala.net
www.tolosakoudala.net